

Sinetsi ezinik

Aiert Goenagaren kaleratzeak deseroso sentia- razten nau, eta buruak leher egin orduko barruak hustu beharra daukat.

Gerediaga Elkarteko kidea naizen aldetik esan nahi nuke ez nagoela ados elkarteak Aierti kon- tratua ez luzatzeko hartu duen erabakiarekin. Ez da lehen aldia Euskal Liburu eta Disko Azokak di- ru galerak dituen, eta gertatu direnean ez ziren krisi garaia ere, baina horregatik ez da inoiz zu- zendaririk kaleratu.

Gainera, oso larria iruditzen zait esatea Aiertek ez duela zintzo jokatu Gerediaga Elkar- tearekin eta ezin dut konprenitu nola prentsaratu dezakegun tamaina horretako akusazioa aurrez frogatu gabe.

Erabakia errespetuz hartzen dut, zuzendari- tzaren gehiengoak hartu duelako, baina ezin dut konpartitu.

Aierti nire esker ona, egindako lan guztiagatik.

Kepa Bengoa Madariaga - Gerediaga Elkarteko kidea